

BERTAN

2018
MARTXOAK
1•8•15•22



kulturunea

Urdaneta kalea 9
20006 Donostia
Tel.: 943 112 893
kmk.gipuzkoakultura.eus
programazioa@gipuzkoa.eus



ORAIN
KULTURA

ERAKUSKETA

Koldo Mitxelena Liburutegian
(1.solairua), bertan gordetzen
diren Iparraldeko atzoko
eta gaurko liburu, irudi eta
dokumentuen erakusketa
liburutegiaren ordutegian
bisitatu daiteke martxoan zehar.



Diseinua: Concetta Probanza

SS-xxx-2018

IPARRALDEA

17. EDIZIOA



Martxoak

Osteguna
19:00etan

1

Pauline eta Juliette bikotea Kontzertuan

Bi kantari gazte, bat Pauline Junquet, 23 urte Kanboko eta bestea Juliette, 19 urte, Itsasun kokatua. Biak kantari zoragarriak, biak musikari trebeak. Arrakasta handia badute gaur egun Euskal Herriko plazetan eta haratago ere. Beren lehen diska argitaratu dute duela guti, Agorila argitaletxean, « Hegaldaka » izenburua emanez. 11 folk kantu, gehienak Euskaldunak bainan ere kanpoko ereslari batzuenak, hala nola Francis Cabrel frantses kantari ospetsuarenak.

Martxoak

Osteguna
19:00etan

8

Zinea « Estitxu » filma (Baleuko)

FRANCK DOLOSOR kazetaria eta
IBAN GONZALEZ zuzendariaren
eskutik

Kantua, irria eta Euskal Herria izan ziren Estitxu abeslari aintzindariaren ardatz nagusiak.

Kitarra beti eskuetan zuela, Estibaliz Robles Arangiz (1944 Beskoitze/ 1993 Bilbo), Euskal Herriak eman duen kantari hoberenetakoak arrakasta itzela lortu zuen Euskadi, Venezuela, Mexiko edota Parisen. Frankismoaren zentsura pairatu zuen urteetan, Estitxu gogo handiz gonbidatzen zuten Frantzia eta Hego Ameriketako telebistetan.

Bere tinbre bereziarekin, euskal kantu berriaren sortzaile nagusienetakoa izan zen. Hit Paraden lehen postuan egon zen ere maiz Estitxu.

25 urte betetzen direlarik zendu zela, senide eta adiskideek omenaldia eskaintzen diote dokumental horretan, hainbat lekukotasun zoragarriren bitartez.

Martxoak

Osteguna
19:00etan

15

« Harian » ikuskizuna•pianoa•poesia

ELODIE BUFFALIO (pianoa) eta
MAIKA ETXEKOPAR (ahotsa) bikotea

Elodie Buffalio eta Maika Etxekopar aspaldiko adiskideak dira, eta sorkuntza honen bidez haien ibilbide artistikoak gurutzatzea erabaki dute. Bien arteko hurbiltasunak gai intimoetan sartzea eraman ditu, egunerokoan axolatu ahal izan dituzten gaiak artearen bidez landuz, adieraziz. Hortik sortu da HARIAN, kantua, olerkia, pianoa uztartzen eta taularatzen dituen pieza.

Biziaren oreka da ikusgarriaren haria. Bizian, zerk errotzen gaitu ? Algarren kontrako zoin indar etengabe borrokan ari zaigu barnean ? Haien ustez, oreka eta gelditasuna oso gauza desberdinak dira, eta haiek orekaren dinamikak eta poetikak interesatzen dituzte. Bizirik irauteko mantentzen saiatu behar den oreka horrek. Hautatu dituzten poeten hitzak oreka dinamiko horren adierazle dira : Itxaro Borda, Xabier Lete, Joxean Artze, Goliarda Sapienza, Attuli, besteak beste.

Martxoak

Osteguna
19:00etan

22

Kontzertua BIDAIA Taldea

Ahotsa, zarrabetea:
CAROLINE PHILLIPS

Ahotsa, gitarra, albokak, flautak,
banbuzko klarinetea:
MIXEL DUCAU

Fretless baxua:
MATTHIEU HARAMBOURE

Perkusioak:
FRED FAURE

BIDAIA taldeak ezohizko bezain musika bidaia aberatsa proposatzen digu, «HITZA» bere disko berria argitaratuz. Mixel Ducau eta Caroline Phillips bikoteak Euskal Herriko melodiak uztartzen ditu munduko beste soinuekin batera.

Amets Arzallus, Aitor Sarasua, Daniel Landart eta Xabier Amuriza olerkariaren hitzekin 9 abesti gehi tema instrumental batekin osatua da laugarren *opus* hori.

Jatorrizko instrumentazioak (zarrabetea, albokak, «open tuning» folk gitarra, banbuzko klarinetea) eta ritmo sendo batzuek (kasik rock batzuetan), euskal kantagintza garaikide bat sortzen dute.